



19-XII-1968

SAXIN

Piarrres Lafitte jauna


CARBON jai ta Urte berri madurez
betea opa dizut

biotz - biotzez

Alberdi in Andoain

Arantzazu-ko "SAXIN" inakurjariaren
aurteneko urte tamia, 12 litera, erregulaz
dizut ordaintzeko edo pagatzeko bidea
egitea.

Esker oniz



PARA BILBAO MADRID
BARCELONA Y VALENCIA
ONGA N.º DISTRITO POSTAL

jakin

JAKIN sorta
JAKIN
liburu sorta

arantza zu-oinati



-2 MAR 31


PONGA N.º DISTRITO POSTAL
D. PIEMES LAFITTE

Seminaire
USTARITZ 64 France

Euskaltzale min horri, agur!

Orain hilabete pasatxoa gure ~~TEOLOGIA~~ ~~HEZKUNTZA~~ Arako
~~aurre-programa bat bidali genizun, zure azterketa eta~~
~~kritika bat eskatuaz. Badakigu lanpetua izanen zarela,~~
~~beti langile on zarenez; baina, hala ere, berriz~~
ere dei hau egin nahi dizugu. Zer bait egiterik
ez ote duzu izango? Datozen hamabost egun hauetan
beharrezko izango litzake azterketa egitea, beste-
la ezingo bait dugu aurrera jo. -- Mila eta bat
esker gure deiari egiten diozun harrera onagatik.
Zurearen zain geratzen gara, guzion onerako. Agur!

Joseba Intxausti



JAKIN taldea
aldizkaria - liburua

arantzazu

ONATE - Gipuzkoa

Telef: 78-11-72

Tolosa 1971-ko ekainak 28

Piarres Lafitte jaunari
Ustaritz

Adiskide maite:

Aztertu dut zure Jean Hiriart-Urruty Kalonjearen baratzetik liburua. Antologia zoragarria dela uste dut; sarrera era zuk duzun piper bixiarekin agitz atsegina.

Prest gaude gure JAKIN liburu sorta barnean argitaratzeko, eta horretarako elkarrekin puntu batzu aztertu beharko ditugu. Argitalpen har aintzina atera dezagun, lehenbaitlehen elkar ikustea komeni litzaiaguke.

Liburua gure harpidedunen artean zabalduko genduke. Bataz beste mila bat zabalduko genituzke bapatean, hegoaldean. Uste dut benetan euskararen onerako izanen litzakeela liburu hau hemen ezagunaraztea. Baina gure harpidedun-talde honek lotu egiten gaitu gu ere, eta hereago liburu nahiko lodia badugu. Ikusten dudanez, 300 horrialde-tatik urbil izanen da eta, argitaratzeko, benetan elkarturik egin beharko litzake, irakurleek salneurri pagagarri batean ukan dezaten.

Lehenik, beraz, zera ikusi beharko dugu: zenbat ale nahi dituzue iparralderako? Zeuok liburu-multo^{kat} eramane al duzue? Oraindik ez dezaizuket esan zerbatean eman genezaizuekeen, baina uste dut, bostehun bat ale baldin balira (500) eta 280 bat horrialde direla, 3.500 liberatan (NF) eman genitzakeela. Honetaz mintzatuko ginake. Horra joan aurretik zerbait pentsa dezazun adiarazten dizut hau.

Eta ba dira beste zenbait erabakigarri ere, liburuari berari begira. Zuk ongi ezagutzen duzu Hiriart-Urruty gizona eta haren pentsa-moldea: komeni litzaiaguke, batez ere honako, liruru-titulua aldatzea, zerbait pizgarririk ematen diogula, hemengoek^{ez} baitugu, zoritzarrez, izkribatzaile bikain hau ezagutzen. Pentsatuko duzu zer egin litekeen, beharbada titulupeko zerbait emanik.

Ortografia aldetik ere zerbait egin beharko litzake agian, beti-beti ez baita berdin ageri. Hemengoek noski ez ligukete barakatuko hori.

Gainera, hemengoentzat, hiztegitxo zerbait emango nuke, bestela irakurle geinei gogor gertatuko zaie mintzaira eder hau. Guk nahi gendukeena zera da: hemen ikus dadila, ba dela hor ere euskara bat, zerbait gauzetan hemengoagandik aski urruna; baina hori ikus dezaten, lan bakoitzari-edo, eman beharko zaio hiztegi-lagunarriren bat.

Artikulu denek ez dute beren egunurterik, datarik, ekarri. Hutsune horiek ere bete beharko ditugu.

euskal gazteria kultura bideetan

Aurkibidearen eta artikuluen izenburuak ez datoz beti ados. Horrek ere beharbada beharko luke ikuturen bat. Zeuk ikusiko duzu.

Liburuaren aurretik, JAKIN liburu sortan zergatik argitaratzen den esan beharko genduke, argitaldarien ohar bat ezarriaz. Guretzat, liburu hau batasun-bide bat da; hemengoei horko euskara ikusarazi nahi diegu. Zuk besterik pentsatzen ez baduzu, argitaldari-ohar hori liburuaren atari bezala agertuko litzake, ondoren zure Aintzin solasa datorrela.

Lan guzia borobilduaz, ez ote litzake komeni histori-ohar zenbait ematea? Esate baterako, lehenen partean, Zonbait begitarte horretan, ez letorke gaizki Drumont, Ferry, Déroulède, eta abarren berri llaburtzo bat ematea, hemengo gaurko irakurleek zerbaiten argitasunik ukan dezaten.

Horra, Baiona-ko astera agertzean, eramanen dizut zure lanaren kopia bat, eta ea elkarrekin azken erabaki batzu hartu eta hau dena aintzina eramaten dugun.

Izan ongi. Zure esanetara naukazu Tolosan. Agur, bihotzez.

peña fatxusa